JUNTAS GENERALES DE ALAVA

ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**SUPLEMENTO**

al Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava

**GEHIGARRIA**

Araba Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala

**2010eko otsailaren 3a, asteazkena** ZENBAKIA **13** NÚMERO **Miércoles, 3 de febrero de 2010**

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**543**

**2/2010 Foru Araua, urtarrilaren 25koa, Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailak, eta Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Sailak, eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak Oleum Proiektua deritzona garatzeko izenpetu beharreko lankidetza-hitzarmena berrestekoa.**

Arabako Biltzar Nagusiek, 2010ko urtarrilaren 25ean egindako Osoko Bilkuran ondoko Foru Araua onetsi dute:

2/2010 Foru Araua, urtarrilaren 25koa, Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailak, eta Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Sailak, eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak Oleum Proiektua deritzona garatzeko izenpetu beharreko lankidetza-hitzarmena berrestekoa.

Landa garapena ezinbesteko eta oinarrizko faktorea da garapen iraunkorra bermatzeko eta horretarako populazioa landa guneetan geratzea sustatu behar da, enplegua piztuz, bizi kalitatea hobetzeko zerbitzuak eta azpiegiturak parekatuz, tokiko eragileak gaituz eta kultura eta ohiturak sustatuz lan hazitegi gisa.

Landa ingurunearen dinamizazio sozioekonomiko horrek behar du piztu zenbait faktore endogeno, ekonomia jarduera banatu dadin bai ingurumena errespetatzen duten prestakuntza jarduera berriak sortuz, hala nola, turismoa, aisialdia, artisautza, energia berriztagarriak instalatzea, bai aktibo berrietako nekazaritza eta baso arloan sartzea sustatuz, hala nola, gazteak, emakumeak, elbarriak, talde marjinalak, etorkinak eta abar.

## JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

**543**

**Norma Foral 2/2010, de 25 de enero, de ratificación del convenio de colaboración entre los Departamentos de Agricultura y de Política Social y Servicios Sociales, de la Diputación Foral de Álava, y el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, del Gobierno Vasco para el desarrollo del denominado Proyecto Oleum.**

Las Juntas Generales de Álava en su Sesión Plenaria celebrada el día 25 de enero de 2010, han aprobado la siguiente Norma Foral:

Norma Foral 2/2010, de 25 de enero, de ratificación del convenio de colaboración entre los Departamentos de Agricultura y de Política Social y Servicios Sociales, de la Diputación Foral de Álava, y el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, del Gobierno Vasco para el desarrollo del denominado Proyecto Oleum.

El desarrollo rural, que es factor básico e imprescindible para garantizar el desarrollo sostenible, requiere promover el mantenimiento de la población en las zonas rurales, mediante el fomento de oportunidades de empleo, la equiparación de servicios e infraestructuras para mejorar la calidad de vida, la capacitación de agentes locales, el fomento de la cultura y las tradiciones como semillero ocupacional.

Esa dinamización socioeconómica del medio rural precisa de la activación de una serie de factores endógenos que conduzcan a la diversificación de la actividad económica, bien sea impulsando nuevas actividades ocupacionales respetuosas con el medio ambiente como el turismo, el ocio, el artesanado, la instalación de energías renovables; bien fomentando la integración en el sector agrario forestal de nuevos activos: jóvenes, mujeres, personas discapacitadas, grupos marginales, inmigrantes, etc.

Ardoaz eta zerealaz gain, olibondoa ere Arabako Errioxako paisaiaren zati da, eta duela mende batzuk betiko laborantzen artean izan ohi da, zerealak landatzeko mekanizazioak, hasieran, eta ardogintza sektorearen gorakadak laurogeiko hamarkadan etekin handiekin, behera eragin badute ere olibondoen pisua eskualdean, 32.000 bat arbola egonik mende honen hasieran, olio ekoizpena erabat murriztuta.

Zenbait faktorek konfiantza itzuli dute Arabako Errioxako olibondo ekoizpenaren ahalbideetan, etorkizun itxaropentsua iragartzen dutenak; hauexek dira faktoreok: eskualdeko eragileen talde baten bultzada, azpiegitura eraldatzaile egokia egotea, badauden landatzeko teknikak eta barietateak aztertzea, olibondo jarduera babestu, suspertu eta berreskuratzeko elkarte baten jarduera, eraginpeko administrazio publikoen laguntza, ingurumena errespetatzen duten landatzeko teknika egokienei buruzko prestakuntza eta ahalbidetze ikastaroak egitea, barietate hautapen zuzendua, eta egiaztatutako kalitateko oliba olio birjinaren hiru uzta.

Olibondoa tinkotzeko inguruneko aberastasun ekoizpenaren iturri osagarri moduan, landatzean teknikarik onenak ezartzen laguntzeko eta gidatzeko gauza den egitura eratu eta jarri beharko da, bateragarri egingo duena etekina eta ingurumenaren babesa, esate baterako eraldaketa prozesuetan,ardura bereziekin osasun eta elikadura bermeen arloetan, bai eta olioaren merkaturatzea kudeatu, sustatu eta tinkotzeko ere.

Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailak bere ahalegin guztiak batzen ditu landa ingurunea sustatu, suspertu eta ezagutarazten, ekonomia ikuspuntutik ez ezik, lan eta gizarte-kultura ikuspuntutik ere, horren garapena sustatu beharrekoa baita nekazaritza, abeltzaintza eta baso lanak egiten dituzten pertsona guztien lana duintzeko.

Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Sailak, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen bitartez, besteak beste, Arabako pertsona ezinduek lan garapenera eta garapen pertsonalera iristeko aukera iraunkorrak lortu eta tinkotu ditzaten du helburu, pertsonengan eta merkatuan oinarritutako enpresa kudeaketaren bidez.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak ere erakunde ekintza bideratu nahi du landa ingurunearen garapen integral, iraunkor eta errespetutsuaren alde, bere planeamendu estrategikoaren barne hartuta bai kalitateko produktuak sortzea bai sektorea modu iraunkorrean garatzeko gai izango diren adituak prestatzea.

Hiru sailen arteko lankidetza kasuan kasuko hitzarmenaren bidez gauzatuko da, non jasoko diren bakoitzaren konpromisoak eta betebeharrak.

Arabako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailak, Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Sailak eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak lankidetza hitzarmena izenpetzea onartu du eta, Arabako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketari buruzko 1983ko martxoaren 7ko Foru Arauaren 6.2.b) artikuluan eta Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 6.1.2. artikuluan xedatutakoaren arabera, Arabako Biltzar Nagusiek adierazitako akordioa berretsi behar dute.

Artikulu bakarra

Lehenengoa.- Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailaren, Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Sailaren eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren arteko lankidetza hitzarmena berresten da, Diputatuen Kontseiluak xedatu duenaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2010ko urtarrilaren 25a.– Lehendakaria, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

Junto al vino y al cereal, el olivo forma parte del paisaje de la Rioja Alavesa, y desde hace siglos ha venido formando parte de los cultivos tradicionales, aunque la mecanización del cultivo del cereal, inicialmente, y la explosión del sector vitivinícola, en la década de los ochenta con la obtención de altas rentabilidades, han venido reduciendo el peso del olivar en la comarca hasta apenas unos 32.000 árboles al inicio del siglo actual, además de la relegación a residual de la producción aceitera.

La conjunción de varios factores como: el impulso de un grupo de agentes comarcales, la existencia de una adecuada infraestructura transformadora, el estudio de las técnicas de cultivo y de las variedades existentes, la actividad de una asociación para la defensa, fomento y recuperación de la actividad olivarera, el apoyo desde las administraciones públicas implicadas, la realización de varios cursos de formación y capacitación de las técnicas de cultivo más adecuadas con el respeto al medio ambiente, una selección varietal dirigida, y la producción de tres cosechas de un aceite de oliva virgen extra de una calidad constatada, han devuelto la confianza en la potencialidad de la producción olivarera de la Rioja Alavesa, lo que hace presagiar un futuro esperanzador.

La consolidación del olivo como fuente complementaria de producción de riqueza en la zona, precisará del establecimiento y formación de una estructura capaz de apoyar y guiar la implantación de las técnicas más óptimas en el cultivo, que compatibilicen el rendimiento con la protección ambiental, como en los procesos de transformación, con especial celo en los aspectos sanitarios y de garantía alimentaria, y de gestionar, impulsar y consolidar la comercialización del aceite.

El Departamento de Agricultura de la Diputación Foral de Álava, concentra todos sus esfuerzos en impulsar, fomentar y dar a conocer el mundo rural, no solamente desde el punto de vista económico, sino también laboral y sociocultural, cuyo desarrollo es necesario potenciar para dignificar la labor de todas las personas que se dedican a las labores agrícolas, ganaderas y forestales.

El Departamento de Política Social y Servicios Sociales, a través del Instituto Foral de Bienestar Social, persigue entre otros objetivos, conseguir y consolidar oportunidades sostenibles de acceso al desarrollo laboral y personal de las personas con discapacidad de Álava, mediante una gestión empresarial basada en las personas y el mercado.

El Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, del Gobierno Vasco también aboga por orientar la acción institucional hacia el desarrollo integral, sostenible y respetuoso de la zona rural, incluyendo en su planeamiento estratégico tanto la generación de productos de calidad, como la formación de profesionales capaces de desarrollar el sector de forma sostenible.

La colaboración interinstitucional entre los tres departamentos se instrumentaliza a través del correspondiente Convenio, donde se recogen los compromisos asumidos y las obligaciones a satisfacer por cada uno de ellos.

El Consejo de Diputados de la Diputación Foral de Álava ha acordado la suscripción de un Convenio de colaboración entre sus Departamentos de Agricultura y de Política Social y Servicios Sociales, y el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco, de conformidad con lo establecido en el artículo 6.2.b) de la Norma Foral, de 7 de marzo de 1983, de organización Institucional del Territorio Histórico de Álava, y en el 6.1.2 de la Norma Foral 52/1992, de 18 de diciembre, de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de la Diputación Foral de Álava, procede la ratificación de dicho Acuerdo por las Juntas Generales de Álava.

Artículo único

Primero.- Se ratifica el Convenio de Colaboración entre los Departamentos de Agricultura y de Política Social y Servicios Sociales de la Diputación Foral de Álava y el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco, en los términos acordados por el Consejo de Diputados.

Vitoria-Gasteiz, 25 de enero de 2010.– El Presidente, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**544**

**3/2010 Mozioa, urtarrilaren 25ekoa, Arabako Foru Aldundiari Arabari dagozkion mahats zuri aldaeren landaketa hektareak mahastizain arabarren artean banatzea ahalbidetzen duen araudi bat eta arloa eta mahats eta ardo motak sustatzeko beste neurri batzuk onesteko eskatzeko dena.**

Arabako Biltzar Nagusiek, 2010ko urtarrilaren 25an egin duten Osoko Bilkuran, ondorengo mozio hau onetsi dute:

3/2010 Mozioa, urtarrilaren 25ekoa, Arabako Foru Aldundiari Arabari dagozkion mahats zuri aldaeren landaketa hektareak mahastizain arabarren artean banatzea ahalbidetzen duen araudi bat eta arloa eta mahats eta ardo motak sustatzeko beste neurri batzuk onesteko eskatzeko dena.

1.- Arabako Biltzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote Arabari dagozkion mahats zuri aldaeren landaketa hektareak mahastizain arabarren artean banatzea ahalbidetzen duen araudia onesteko, Eusko Jaurlaritzak heda daitekeen azalera zein den eta Errioxako jatorri deituraren (J.D.) esparruan landatzeko diren mahats aldagaiak zein diren jakinarazi ostean.

2.- Arabako Biltzar Nagusiek Nekazaritza Foru Sailari eskatzen diote araudi horretan Arabako mahastizaintza arloaren proposamenak kontuan har daitezela eta nekazari gazteen eta mahastizain profesionalen eskaerei lehentasunezko babesa emateko aukera aintzat har dadila.

3.- Arabako Biltzar Nagusiek Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plagintza, Nekazaritza, Arrantza eta Ingurumen Sailari eskatzen diote Arabako Errioxan ekoiztutako ardo zuriaren inguruko informazio eta merkataritza kanpainak sustatzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2010ko urtarrilaren 25a.– Presidentea, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**532**

**Osoko Bilkuran eztabaidatzeko mozioa, Eusko Jaurlaritzari Espainian bakarrik dauden atzerritar adingabeen egoerari irtenbidea emateko eskatzeko dena.**

Roberto González Muro jaunak, EAJ-PNV Biltzarkide Taldeko Bozeramaileak, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko mozioa aurkeztu du, Eusko Jaurlaritzari Espainian bakarrik dauden atzerritar adingabeen egoerari irtenbidea emateko eskatzeko dena.

Mozio hau Arabako Biltzar Nagusien jarduera Arautegiko 156. artikuluan aipatuetako bat da, eta beraz, artikulu horri jarraituz, zazpi eguneko epea zabaltzen da biltzarkide taldeek mozio horretarako emendakinak aurkez ditzaten.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko urtarrilaren 26a.– Lehendakaria, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**533**

**Batzordean eztabaidatzeko mozioa, Arabako Garraioaren Agintaritzaren estatutuei buruzkoa**

Nerea Gálvez Lavín andreak, Ezker Batua-Berdeak/Aralar Biltzarkide Taldeko Bozeramaileak, Batzordean eztabaidatzeko mozioa aurkeztu du, Arabako Garraioaren Agintaritzaren estatutuei buruzkoa.

Mozio hau Arabako Biltzar Nagusien jarduera Arautegiko 156. artikuluan aipatuetako bat da, eta beraz, artikulu horri jarraituz, zazpi eguneko epea zabaltzen da biltzarkide taldeek mozio horretarako emendakinak aurkez ditzaten.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko urtarrilaren 26a.– Lehendakaria, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

## JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

**544**

**Moción 3/2010, de 25 de enero, por la que se insta a la Diputación Foral de Álava a aprobar la normativa que permita repartir las hectáreas de plantación de distintas variedades blancas de vid que corresponden a Álava entre los viticultores alaveses y otras medidas relativas a la promoción del sector y de la variedad de uva y vino.**

Las Juntas Generales de Álava en su Sesión Plenaria celebrada el día 25 de enero de 2010, aprobaron la siguiente moción:

Moción 3/2010, de 25 de enero, por la que se insta a la Diputación Foral de Álava a aprobar la normativa que permita repartir las hectáreas de plantación de distintas variedades blancas de vid que corresponden a Álava entre los viticultores alaveses y otras medidas relativas a la promoción del sector y de la variedad de uva y vino.

1. Las Juntas Generales de Álava instan a la Diputación Foral de Álava a que proceda a aprobar la normativa que permita repartir los derechos de plantación de las hectáreas de uva blanca que correspondan a Álava entre nuestros viticultores, una vez que el Gobierno Vasco le haya comunicado la superficie de viñedo ampliable así como las variedades a cultivar en el ámbito de la Denominación de Origen (D.O.) Rioja.

2.- Las Juntas Generales de Álava instan al Departamento Foral de Agricultura, a que en la citada normativa se tome en consideración las propuestas del sector vitivinícola alavés y contemple el apoyo prioritario a las solicitudes de jóvenes agricultores y a las de vitivinicultores profesionales.

3.- Las Juntas Generales de Álava instan al Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco, a que impulsen campañas informativas y de comercialización relativas al vino blanco producido en Rioja Alavesa.

Vitoria-Gasteiz, 25 de enero de 2010.– El Presidente, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

## JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

**532**

**Moción para debate en Pleno, por la que se propone instar al Gobierno Vasco a dar solución a la situación de los menores extranjeros no acompañados en España.**

D. Roberto González Muro, Portavoz del Grupo Juntero EAJ-PNV, presenta moción para debate en Pleno, por la que se propone instar al Gobierno Vasco a dar solución a la situación de los menores extranjeros no acompañados en España.

La moción es de las señaladas en el artículo 156 del Reglamento de Funcionamiento de estas Juntas Generales de Álava, por lo que de acuerdo con el citado artículo, se abre un período de siete días durante los cuales los Grupos Junteros podrán presentar enmiendas a la citada moción.

Vitoria-Gasteiz, a 26 de enero de 2010.– El Presidente, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

## JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

**533**

**Moción para debate en comisión, sobre los estatutos de la Autoridad del Transporte en Álava.**

Dña. Nerea Gálvez Lavín, Portavoz del Grupo Juntero Ezker Batua-Berdeak/Aralar, presenta moción para debate en comisión, sobre los estatutos de la Autoridad del Transporte en Álava.

La moción es de las señaladas en el artículo 156 del Reglamento de Funcionamiento de estas Juntas Generales de Álava, por lo que de acuerdo con el citado artículo, se abre un período de siete días durante los cuales los Grupos Junteros podrán presentar enmiendas a la citada moción.

Vitoria-Gasteiz, a 26 de enero de 2010.– El Presidente, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**534**

**Interpelazioa, Ingurumen Saileko foru diputatuari zuzendua, bere Sailak energia berriztagarrien arloan duen politikari buruzkoa.**

María Cristina González Calvar andreak, Euskal Sozialistak Biltzarkide Taldeko biltzarkideak, Interpelazioa aurkeztu du, Ingurumen Saileko foru diputatuari zuzendua, bere Sailak energia berriztagarrien arloan duen politikari buruzkoa. aurkeztu du.

Eta hemen ematen da argitara Foru Aldundia kontrolatzeko, Osoko Bilkura bereziei buruzko ebazpen orokorraren hirugarren atalaren 2. puntuari dagozkion ondorioetarako

Vitoria-Gasteiz, 2010eko urtarrilaren 26a.– Lehendakaria, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

## JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

**534**

**Interpelación, dirigida al Diputado Foral de Medio Ambiente, sobre la política de su departamento en relación con las energías renovables.**

Dña. María Cristina González Calvar, procuradora del Grupo Juntero Socialistas Vascos, presenta Interpelación, dirigida al Diputado Foral de Medio Ambiente, sobre la política de su departamento en relación con las energías renovables.

Lo que se publica a los efectos del apartado tercero, punto 2 de la Resolución de carácter general sobre Plenos Específicos para el control de la Diputación Foral.

Vitoria-Gasteiz, a 26 de enero de 2010.– El Presidente de las Juntas Generales de Álava, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.